

Yasar Kemal, *Ararat mendiaren sumina*.
Alberdania & Elkar (Literatura Unibertsala bilduma, 104).
Itzultzailea: Fernando Rey

Yasar Kemal (1922), Anatolia hegoaldean familia kurdu batean jaioa, gaur egungo idazle turkiar bizirik ezagunena da, eta XX. mendeko idazlerik handienen artean sartzen dute askok. Berrogei liburutik gora idatzi ditu, herrialde eta hizkuntza askotan argitaratuak, eta hainbat sari garrantzitsu irabazitakoa da, baita nazioarte mailan ere. Orain, euskaraz ere badugu haren lan bat irakurriz gozatzeko parada, *Ararat mendiaren sumina*, Fernando Rey itzultzaile nafarrak zoragarri euskaratua.

Haren biografiari buruzko oharrak emateko orduan, ezin daiteke esan gabe utzi idazle guztiz konprometitua dela bere herrialdeko behartsu, zanpatu eta jazarritako politikoez, bai eta bere jatorrizko herri kurduarekiko ere, eta horrexegatik behin baino gehiagotan ezagutu dituela Turkiako presondegiak. Nazioarteko hainbat erakundek eta idazlek eginiko protestei esker berrekuratu izan du askatasuna.

Beste datu biografiko oso interesgarri bat aipatzearen, umea zelarik 12 urte izan arte galdu zuen zuzen mintzatzeko ahalmena, aitaren hilketaren ondorioz, eta, gauza harrigarria, kantatuaz soilik lortzen omen zuen hitzak ongi ahoskatu eta komunikatu ahal izatea; horrexegatik, txikitandik hasi omen zen kantuak asmatzen, Anatoliako herri-kanten tradizioari jarraiki, eta hain zuzen ere, poesiarekiko maitasun horrek erakarri zuen gero literaturaren mundura, lehendabizi irakurle modura, eta gero idazletzara. Horrela, 1947an hasi zen idazten, eta bere herrian ez ezik baita atzerrian ere ospea inguratu zion lana, *Mehmed belatza*, 1955an argitaratu zuen. Gerora, Nobel Sarirako hautagai ere izan da behin baino gehiagotan.

Ararat mendiaren sumina alegia poetiko bat da, ahozko tradizioaren oihartzunez eta baita *Mila gau eta bat gehiago* liburuko istorioen lurrinez betea; maitasun istorio bat du ardatz: pasha otomandar baten alaba den Gülbahar izeneko neska baten eta Ahmet artzainaren artekoa. Baina pasha boteretsuaren aurka borrokatu beharko dute, ez bakarrik elkar maitatu ahal izateko, baina baita bizirik jarraitzeko ere. Izan ere, pasharen zaldirik maiteena Ahmeten atearen aurrean hiru aldiz agertu ondoren, artzainak ulertu zuen Alah ahalguztidunak bidalia zela zaldia, eta beraz ezin ziola itzuli jabeari; baina pashak kosta ahala kosta berreskuratu nahiko du, bai eta Ahmet hil ere, baina haren alaba Gülbahar artzainaz maitemindu eta hura salbatzen saiatuko da, bere bizia bera ere arrisku handian jarriaz eta aitaren maitasuna galduz.

Tonu epiko eta poetikoaren azpian, kontakizunaren lurrin tradizional aipatuaren azpian, beraz, nagusikeriaren eta agintekeriaren aurkako gaitzespena dago, eta, herri kurduaren historia gogoratuz, Ararat inguruko biztanleek mendez mende jasan dituzten nagusikeria eta agintekeria bortitz eta beldurgarrien aurkako istorioa antzeman dezakegu; baina, liburuko orrietan irakur daitekeen bezala, Ararat mendiko aintziaren ondoan biltzen diren artzain txirula-jotzaileek ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi kontatua dirudien ipuin bat bezain arin idatzia da, irakurgoxoa da erabat, azken orrira iritsi arte eskuetatik soltatu nahi ez direnetakoa. Horretan, gainera, bete-betean asmatu du Fernando Rey itzultzaileak, istorioak berak eskatzen duen euskara eder eta arinean ipiniz.

Koldo Biguri